| | |
|---|---|
| **ADIERAZLEA:** | **MERKATARITZAREN DENTSITATEA** |
| **FITXA METODOLOGIKOA** | |
| **ARDATZA:** | **EKONOMIA** |
| **ALORRA:** | **MERKATARITZA** |

**DEFINIZIOA:**

Udalerrian 1.000 biztanle bakoitzeko dauden txikizkako merkataritzako establezimenduen kopuru osoa.

**NEURRI UNITATEA:**

‰

**KALKULU METODOLOGIA:**

$$\frac{\text{Udalerrian dauden txikizkako merkataritzako establezimenduak}}{\text{Biztanleria osoa}} * 1000$$

**KALKULU MAIZTASUNA:**

Urtero

**INFORMAZIO ITURRIAK:**

Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID)

**OHARRAK:**

**"Establezimendua**" ondasunak edo zerbitzuak produzitzen dituen unitatea da, bertan ekonomi edo gizarte izaerako jarduera bat edo gehiago egiten direnean, titular edo enpresa baten erantzukizun pean, toki, lokal edo elkarri lotutako lokal-multzo batean, kokapen topografiko jakin batean. Jarduerak, euren ezaugarriak direla bide, ez badira kokaleku jakin batean egiten (garraioa, eraikuntza, alokairuak, garbiketa, arte jarduerak, etab), jarduerak antolatzen edo koordinatzen diren lekua izango da establezimendua. Kasu horretan, enpresaren edo titularraren egoitza soziala edo legezko helbidea izan daiteke establezimendua.

Adierazle hau kalkulatzean, ez dira kontuan izan motoredun ibilgailuak, motozikletak eta ziklomotoreak salerosteko establezimenduak, ezta establezimenduetatik kanpo egiten diren salerosketak ere.

Horrenbestez, CNAE-2009ko berrikuspeneko kode hauetan sailkatutako establezimenduak sartzen dira:
47.1: Txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan.
47.2: Elikagaien, edarien eta tabako produktuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.
47.4: Informazioaren teknologietarako eta komunikazioetarako ekipoen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.
47.5: Etxean erabiltzeko beste artikulu batzuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.
47.6: Kulturarako eta aisialdirako artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.
47.7: Beste artikulu batzuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.